



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 22a

40. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Nafarroan Politika Sozialak zertan diren eta horiek hobetzen laguntzeko neurriak aztertzeko Osoko Bilkura monografikoak onetsitako erabakiak (2. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (7. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Nafarroan Politika Sozialak zertan diren eta horiek hobetzen laguntzeko neurriak aztertzeko Osoko Bilkura monografikoak onetsitako erabakiak.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2016ko martxoaren 4an egindako bilkuran, ondorengo erabakiak onetsi zituen, Nafarroan Politika Sozialak zertan diren eta horiek hobetzen laguntzeko neurriak aztertzekoak:

Lehenengoa.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du pertsona guztiak barne hartuko dituen hazkunde bat egonkortu dezan, eta lanean jarrai dezan pobrezia eta gizarte-bazterketa gainditzeko, gizartearen, lanaren eta hezkuntzaren arloan aukera gehiago sortuz.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromisoa izaten jarrai dezan enpleguan, emakumezkoen ekin-tzailertzan eta soldata-arrailaren murrizketan BENETAKO berdintasuna lortzeko, lana eta familia bateragarri egin eta erantzunkidetasuna sustatzen duten neurriak ezartzeko eta desberdinkeria-aren aurka borrokatzeko, prestakuntza bultzatuz.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du genero-indarkeriaren aurkako borrokan gehiago ahalegindu dadin, eskola-adina duten adingabe eta gazteen-tzako sentsibilizazio-ekintzen bidez prebentzioa indartuta, eta emakume horientzat berariazko enplegarritasun-ibilbideak susta ditzan, abusu-aren eta tratatu txarren biktima diren adingabeak inoiz ahaztu gabe, beraiek baitira babesgabeenak eta salatzeko zailtasun gehien dituztenak.

Laugarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrera egiten jarrai dezan desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurriak, haien bereizkeria saihestu eta haien autonomia pertsonalarekiko errespetua bermatzen dutenak, abiarazteko, eta erabateko inklusioaren alde lan egin dezan.

Horregatik, honako jarduketak hauek proposatzen dira:

– Desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntean sartzeko behar diren neurriak ezarri.

– Ereku Soziosanitarioari buruzko plan bat prestatu, desgaitasunaren errealitatea barne hartzen duena eta gizarte erakundearen parte-hartzea daukana.

– Finantzaketa ikertu, aztertu eta garatu, gizarte oinarriko erakundeek ematen dituzten zerbitzuei egonkortasuna emate aldera.

– Txosten bat egin foru araudia Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Itunera egokitzeari buruz.

– Irisgarritasunari buruzko Legea garatu.

Bosgarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren tramiteak gauzatu ditzan Parlamentuan ordezkariak duten alderdi politiko guztien eta Nafarroan dauden gizarte entitateen artean beste itun bat prestatu, adostu eta sinatzeko, gizarte justuagoa eta berdintasun handiagoa lortze aldera.

– Garapenerako lankidetzaren esparruko konpromiso zehatzak, honako hauei buruzkoak:

- Nafarroan betetzea garapen jasangarriaren helburuak, Nazio Batuek 2015ean onetsitakoak.

- Pertsona migratzaileen, errefuxiatuen eta iragaitzazkoen egoera.

- Garapenerako Laguntza Ofizialeko aurrekontuak, 2017, 2018 eta 2019rakoak.

– Konpromisoak, Nafarroan desgaitasuna duten eragiten dien legeria egokitzeko Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Itunera.

– Ereku soziosanitarioa eraiki eta garatzeko konpromisoak.

– Konpromisoak, toki entitateek ematen dituzten zerbitzuen finantzaketa egonkortzekoak.

– Konpromisoak, enplegu arruntean sartzea sustatzekoak.

Seigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du:

1.- 2016. urtean egoitzako eta eguneko arretako zerbitzuetarako azpiegituren hiru urteko plan bat presta dezan. Erabiltzaileen, haien familien eta aipatu zerbitzuetako profesionalen eta entitate kudeatzaileen parte-hartzearekin prestatuko da, eta zentroetan eta pisuetan egin beharreko obrak eta hobekuntzak zehaztuko ditu, egutegi bati jarraikiz eta horretarako behar diren baliabideak esleitzuz.

2.- Legegintzaldi honetan egoitza-etxe bat eraiki dezan Iruñean, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Félix Garrido egoitza-etxean eta Tuterako eta Lizarrako egoitzako zerbitzu misto eta malguetan dauden plazak osatzeko.

Zazpigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du, Nafarroako oinarriko gizarte zerbitzuekin, adinekoen elkarteekin eta egoitza eta eguneko zentroekin batera, esku hartzeko plan bat diseina dezan bakarrik bizi diren adinekoentzat. Plan horretan ekintzak egonen dira pertsona horiei eta haien bizi egoera duinari jarraipen etengabea egiteko, haien isolamendua prebenitzeko eta haien harreman sozialak eta autonomia sustatzeko, haien eskura jarrita jadanik dauden prestazioen eta zerbitzuen osagarriak direnak.

Zortzigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du neurriak eta jarduketak abiaraz ditzan, bultzada emanen diotena desgaitasuna duten pertsonen eskubide guztiak aitortzeari eta eskubide horiek eraginkortasunez eta aukera berdintasunean eskuratzeari, Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Itunean adierazi diren balio, printzipio, agindu eta xedapenen arabera.

Horretarako, honako hauek eginen ditu, besteak beste:

- Desgaitasuna zeharka aplikatuko du berak garatzen dituen jarduera guztien agendan.

- Halaber, genero-ikuspegia aintzat hartuko du, desgaitasuna duten emakumeen eta neskatilen zein haien zaintzaileen berariazko beharrezan erantzuten dieten neurriak eta jarduketak eratuz.

- Azterlan bat eginen du Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen eragiten dieten autonomia eta estatu mailako legeei buruz, eta behar diren alda-

ketak edo garapenak aurreratu eta proposatuko ditu, lege horiek Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Itunera egokitzeko.

- Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legea aplikatu eta garatuko du.

- Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onetsi duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuen % 2 erreserbatu beharra ezartzen duena, betetzeko exijituko du, baita Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 9. artikulua ere.

- Enplegu babestuan laneratzea bultzatuko du, eta informazio-, sentsibilizazio- eta laguntza-neurri aktiboak gehituko ditu, enpresa arruntetan desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea sustatzeko xedez.

- Eremu soziosanitario inklusiboa sortuko du, Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Itunarekin bat datorrena, erakunde arteko elkarrizketa- eta lankidetzak-esparru baten barnean eta pertsonen osasunean eta ongizatean emaitza eraginkorrak lortzera argiro bideratuta.

- Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Plan Integral berri bat prestatu eta gauzatuko du, hautatze-askatasunaren, autonomia pertsonalaren eta bizimodu independentearen printzipioetan oinarritzen dena.

Bederatzigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du hobekuntza eragin dezan errealitate sozialaren analisisian eta diagnostikoan, eskubide sozialen arloaren plangintzan, eta gizarte politiken kalitate-politiken eta ebaluazioaren sustapenean.

Hamargarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du partaidetzako prozesua abiaraz dezan Gizarte Zerbitzuetan Oinarriko Laguntza berrantolatze, Oinarriko Gizarte Zerbitzuen finantzaketa aldatuta eta hobetuta eta falta diren Gizarte Zerbitzuen zentroak ezarrita, Toki Administrazioaren berrantolamendu berriarekin koordinatuta.

Hamaikagarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du tarifa-ereduaren aldaketa onetsi dezan, adinekoen egoitza eta, oro har, gizarte zerbitzuen zentro guztiei dagokienez, halako moduz non bidezkoagoak izanen baitira, errenta erabilgarriaren arabera ordaintzeko irizpideak ezartzen diren neurrian.

Halaber, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du hitzarmen kolektiboak susta ditzan gizarte zerbitzuen arloan, halako moduz non zerbitzu horien kalitatea eta sektorean lan egiten duten pertsonen lan-baldintzak hobetuko baitira.

Hamabigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du mendetasunari arreta eskaintzeko zerbitzuak eta beste gizarte zerbitzu batzuk hobetu ditzan, halako moduz non, arreta sozialeko bitarteko gisa, zerbitzuak indartuko baitira laguntza ekonomikoen modalitateen aldean, bai haien kalitatea bai sektoreko enplegu-sorrera hobetuta.

Hamahirugarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du haurrei buruzko plan berri bat presta dezan, sustapen eta prebentzio politikak lehenesten dituena. Horretarako, alde aurretik azterlan kualitatiboa eta luzetarakoa egin beharko da, egungo baliabideen bidez gauzatzen diren esku-hartze espezializatuen alde positiboak eta negatiboak baloratzen dituena eta oinarri hartuko dena, aurretik dauden baliabideak finkatzeko edo horien aldaketa eta egokitzapena baloratzeko orduan.

Halaber, horrekin batera eta urgentziaz, adingabeei buruzko lege berri bat tramitatu beharko da. Izan ere, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea zaharkituta dago, uztailako 22ko 8/2015 Lege Organikoan eta uztailaren 28ko 26/2015 Legean haurrentzako eta nerabeentzako babes eta sustapen sistema aldatu ondoren.

Hamalaugarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du txirotasunaren eta desberdinkeriaren aurkako itun berri bat prestatu eta sina dezan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturei buruzko Nazioarteko Itunean, Garapen Jasangarriaren Helburuetan eta Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Itunean oinarritzen dena.

Halaber, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Nafarroan Garapen Jasangarriaren Helburuak garatu eta bete ditzan, Nazio Batuek 2015eko irailean onetsi zituztenak eta Espainiako administrazio publikoek pobrezia-aren, bazterkeriaren eta desberdinkeriaren aurkako borrokan konpromiso zehatzak hartzea eskatzen dutenak, gure herrialderako berariazko helburuak eta adierazleak zehaztuta.

Hamabosgarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du gizarte-eragileekin eta gizarte zibileko kolektiboekin elkarrizketa- eta negoziaketa-prozesu bati ekin diezaion, kontratazio publikoko prozesu guztietan sartzeko ondotik datozen baldintzak eta klausulak, erantzukizun sozialari buruzkoak:

– Kontratu publiko guztietan klausula sozial bat, gutxienez ere, egon beharko da, kontratuaren xedearekin lotura duena, esleipen-irizpide gisa nahiz exekuziorako baldintza berezi gisa.

– Kontratazio organoek kontratu bakoitzeko zehaztapen teknikoaren definizioan sartu beharko dute betebeharrak, kontratuaren xede diren ondusunak edo zerbitzuak Espainian eta Europar Batasunean indarra duten arau soziolaboralak betez ekoiztu edo garatu izanaren gainekoa.

– Genero-ikuspegiaren klausulak sartuko dira kontratu publiko guztietan, haien hartzaileak edo erabiltzaileak pertsona fisikoak badira, eta hizkuntza eta irudi sexisten erabilera ekidinen da.

– Kontratuko prestazioan eskulana baldintza erabakitzailea bada eta, batez ere, kontratuaren zati bat azpikontratatzeko baimena ematen bada, langileen eskubideak bermatzen dituzten klausulak sartuko dira, enpresak eta/edo jarduera zentroak eskualdatzen badira.

– Desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-portzentajeak betetzeko klausulak.

– Kontratu publikoak esleitzerakoan halako esleipen-hartzaile batzuk lehenesteko klausulak, horiek frogatzen badute men egiten dietela eta betetzen dituztela hitzarmen kolektiboak eta berdintasunaren nahiz laneko arriskuei aurrea hartzearen arloko lege indardunak.

– Kontratu publikoak halako esleipen-hartzaile batzuei esleitzea ekiditeko klausulak, kontratu-hartzaileek edo haiek sartuta dauden enpresa-taldeak paradisu fiskaletan ordaintzen badituzte zergak.

– Kolektibo behartsuen eta genero-indarkeriaren biktimen kontratazioa eta, oro har, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidezko kontratazioa sustatzeko klausulak.

Hamaseigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du, oinarrizko gizarte zerbitzuen esparruan, honako hauek egin ditzan:

– Oinarrizko gizarte zerbitzuetako giza baliabideak, hala teknikoak nola administratiboak, indartu. Oinarrizko gizarte zerbitzuetako taldeak diziplinarteko taldeak izan behar dira. Teknikariak eta administrariak izan behar dituzte, halako moldez non

teknikariek denbora guztia erabiliko duten arreta pertsonalizaturako. Teknikari bakoitzak erreferentziako profesional jardunen du erabiltzaile bakoitzarentzat, oinarrizko gizarte zerbitzuetako talde profesionalak garatzen duen diziplinarteko lanaren testuinguruan.

– Finantzaketa sistema berrikusi, bai eta populazio tarteari ere, gutxieneko taldeak finantzatu eta zehazteko orduan. Oinarrizko gizarte zerbitzuetan alderdi asko eta oso heterogeneoak daude; horietako egoerak, gabeziak, beharrak, indarguneak eta ahuleziak oso ezberdinak dira haien artean.

– Aurrera egin Tafallan, Iruña-Iruñerrian eta Nafarroako ipar-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko eskualdeetan gizarte zentroen sorreran, funtsezkoak baitira oinarrizko gizarte zerbitzuen eginizuna osatzeko eta parte-hartze oso garrantzitsua baitute, batez ere haurren babesgabetasunaren kasuetan.

– Boluntariora soziala indartu alderdi ez profesionaletan, era horretan gizartearen babesgabeekin inplika dadin.

Hamazazpigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko lege berri bat presta dezan, ikuspegi integral batetik, Haurren Eskubideei buruzko Itunak aitortzen duen eran.

Gainera, esparru berri horretan, Gizarte zailtasunak dituzten haurrak eta nerabeak zaintzeko II. Plana egiten da. Behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak edukiko ditu, benetan aplikatzea ahalbidetuko dutenak. Esku hartzeko eredu berriak sustatuko ditu, eta bertan berariazko estrategia bat sartuko da, familiei laguntzeko babesteko eginkizunetan, haurren, nerabeen eta arloko entitate eta erakunde espezialisten parte-hartzearekin.

Planaren oinarria beharren diagnostiko bat izan beharko da, baliabidez hornituta egonen dena, eta plana betetzearen gaineko jarraipen eta ebaluazio adierazle sistemak hartuko du bere baitan.

Halaber, aipatu planak prebentzioa sustatu beharko du, oinarrizko gizarte zerbitzuen lanari helduko dio familian esku hartzeko programa espezializatuen bidez, haurren eta nerabeen arretarako talde gehiago sortuko ditu eta horiei estaldura gehiago esleituko dizkie, behaketa- eta harrera-zentroetako plaza gehiago sortuko ditu, harrera eta adopzioarako prozesuak arinduko ditu, bere eraginkortasuna areagotuko du emaitza hobekak lortuta, eta, batez ere, baliabideak optimizatuko ditu.

Era berean, familiartekoak ez diren familia hartzaileak lortzeko politika aktiboetarako programa zehatzak areagotu behar dira, eta familia hartzaile espezializatuen programa bat garatu behar da. Halaber, bermatu behar da egoitza-harrerak luzatzea eragozteko behar diren mekanismo guztiak ezartzen direla.

Hemezortzigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, mendekotasunaren eta desgaitasunaren esparruan, honako hauek egin ditzan:

– Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea Nafarroan aplikatzea garatu. Horretarako, gizarte zerbitzuen zorroa aldatuko da, prebentzioko eta epe luzerako ikuspegi batekin; era berean, estimulazio kognitiborako zerbitzu anbulatorioak, lanbide terapia, osasunaren sustapena, eta autonomia funtzionala mantendu eta berreskuratzea eskainiko dira, mendekotasun moderatuan dauden pertsonen eta desgaitasuna dutenen beharretara egokituak.

Gizarte zerbitzuen zorroaren berrikuspenarekin batera jadanik dauden baliabideak berregituratzeko plan bat beharko da, besteak beste, etxeko zerbitzuak erabiltzaileen eskaerara egokitzeko, domotikaren eta beste teknologia batzuen bidez pertsonak etxean beste era batean zaintzeko, laguntza anbulatorioarako ereduak garatzeko, eta eguneko zentroetan berrikuntza sustatzeko eta landa eremuan neurri handiagoan garatzeko, esku-hartze komunitarioagoa lortzeari begira.

– Giza baliabide eta baliabide ekonomiko guztiak ezarri, mendekotasun mailaren balorazioa zein balorazio ekonomikoa egiteko orduan dagoen itxaron-denbora murrizteko.

– Autonomia pertsonaleko, bizimodu independente eta emantzipazioko programak indartu, egoitza-plazen alternatiba gisa.

– Senideei eta zaintzaileei laguntzeko programak garatu.

– Aurrera egin eremu soziosanitario bat, izaera unibertsalekoa eta erantzukizun publikokoa, sortzeko. Eremu horrek erantzun integrala emanen die osasuna, errehabilitazioa eta autonomia baten dituzten beharrei, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legean jasotzen den helburu bati jarraikiz, desgaitasuna duten pertsonen beharrak ere kontuan harturik eta diseinuan eta gobernantzan sartuta irabazi asmorik

gabeko erakundeak, gizarte oinarria dutenak eta Nafarroan dagoeneko adinekoei eta/edo desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko gai direla frogatu dutenak.

Hemeretzigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, enpleguaren esparruan, honako hauek egin ditzan:

– Enpleguko merkatu sozialak (tutorezapekoak edo babestuak) sustatu eta babestu, Administrazioaren gizarteratze politikaren espezifikotasunarekin bat etorrira.

– Kontratazio publikoa egiten den modua aldatu, eraginkortasun, kalitate eta errentagarritasun sozialaren baldintza bertsuak mantenduta positiboki diskrimina daitezen gizarte ekimeneko entitateak.

– Enpresen lankidetzarekin, laneratzea sustatu, gizarte erantzukizuneko osagaia den aldetik, bazterketa egoeran dauden pertsonak enpresa pribatuetan sartzeko eta laneratze enpresen zerbitzuen azpikontratazioa errazteko asmoz.

Nafarroako Gobernuak politika zehatzak bultzatu beharko ditu desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntean laneratzeko. Horretarako, laguntzadun enpleguko programak babestuko ditu, irabazi asmorik gabeko enplegu zentro berezien aldeko apustua eginen du, eta legeak agintzen dion kontrola eginen du, EGLa betetze aldera.

– Behar diren formulak egokitu luzaroko langabezia eteteko; neurri aktiboak eta pasiboak ordeztu eta/edo osatu; arreta berezia eman desgaitasuna duten pertsonen, gutxiengo etnikoen eta laguntza behar duten beste talde edo pertsona batzuen beharrei; eta prebentzio politikak eta politika aktiboak prestatu, lan-merkatuan sartzeko lagunduko dietenak.

Hogeigarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskubide sozialen eremuan lan egiten duten erakunde sozialei laguntza eta diru-laguntzak emateko politika hobetu dezan, honako helburu hauetarako:

– Eskubide Sozialetako Departamentuarekin koordinazioa hobetu, erakundeen programak politika publikoekin lerrokatzeko eta, horrela, administrazio publikotik erabat garatu ezin diren programak osatzeko.

– Diru-laguntzen deialdien prozedurak hobetu, halako moduz non kudeaketa sinplifikatuko baita eta erakunde sozialek garatutako programen egonkortasuna, kalitatea eta efizientzia handituko baitira.

Hogeita batgarrena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Lege berri bat onetsi dezan, gizarteratzeko eskubidea eta errenta bermatua arautzen dituen. Akordio Programatikoa betez, honako alde hauek jorratuko ditu horrek:

– Ahultasun eta/edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsona guztiek gizarteratze- eta laneratze-prozesu baterako daukaten eskubidea.

– Oinarrizko beharrianak betetzeko moduko errenta bermatua behar duten familia guztiek hori eskuratzeko daukaten eskubidea.

– Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borroka, haurren eta adinekoen pobreziaren aurkakoa bereziki nabarmenduta.

– Enplegua eskuratzeko mekanismoak ezartzea eta Lan Bermatua izenkorantz abiatzea.

Argitara dadin agintzen da, Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikularekin bat.

Iruñean, 2016ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (8. or.).

II. Helburua (10. or.).

III. Norainokoa (11. or.).

IV. Iritzia (12. or.).

IV.1. 2014ko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia (12. or.).

IV.2. Legezkotasunaren betetzeari buruzko iritzia (13. or.).

IV.3. Udalaren 2013ko egoera ekonomiko-finantzarioa (13. or.).

IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (16. or.).

IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (17. or.).

V. Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (18. or.).

V.1. 2014ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (18. or.).

V.2. 2014ko aurrekontu-emaizta (19. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (19. or.).

V.4. Udalaren egoera-balantzea (20. or.).

V.5. Udalaren irabazien eta galeren kontua. (21. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (22. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (22. or.).

VI.2. Langileak (23. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (25. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (26. or.).

VI.5. Inbertsioak (27 or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (28. or.).

VI.7. Hirigintza (29. or.).

VI.8. Andacelay SL sozietate publikoa. (30. or.).

VI.9. Gestión y Promoción Egüés 21-II SL sozietate mistoa (30. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (32. or.).


I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Eguesibarko Udalaren eta haren menpeko enteent 2014ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Eguesibarko Udalak 53,57 km² ditu; Altzuza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues, Elkano, Elia, Ibiriku, Olatz eta Sagasetako kontzejuek, Etxalatz, Amokain, Erantsus, Elizmendi eta Egulbatiko jaurerriek eta Uztarroze, Gorraitz eta Sarrigurengo herriguneeek osatzen dute.

2014ko urtarrilaren 1ean, 19.014 biztanle zituen; horietatik, ehuneko 85 inguru Sarrigurenen eta Gorraitzen bizi dira. Jasota utzi behar da, halaber, 2006tik Udalak biztanle kopurua hirukoiztu duela.

Udalaren eta haren menpeko erakundeentz osiera ondoko grafikoan agertzen da:



2014ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazioaren sektore publikoa:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2014-12-31n
Udala	9.469.895	10.327.905	122

- Sozietate publikoak.

2004ko urrian, Udalak Andacelay SL Udalaren hirigintza-sozietatea sortu zuen, bazkide bakarra Udala duela. Sozietate horrek ehuneko 51eko partaidetza dauka "Gestión y Promociones Egüés 21-II SL" sozietate mistoan –2010ean sortua–.

Bi sozietate hauek udaletxean dute egoitza soziala.

Bi sozietateei buruzko datu nagusiak hauek dira:

Enpresa publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Langileak, 2014-12-31n	Ekitaldiko emaitzak	Epe luzeko zorra
Andacelay SL	102.230	86.781	1	15.449	-
Gestión y Promoción Egüés 21 II S.L.	1.665.037	1.654.269		10.768	2.596.414

- Mankomunitateak

Eguesibarko Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Udalak 2014an Mankomunitateari honako kontzeptu hauengatik transferentziak egin dizkio:

Zerbitzuak	2014ko ekarpenak
Eskualdeko hiri-garraioa	267.129
Ibai-parkearen kudeaketa	47.861
Guztira	314.990

Laburpen-taula honetan bai Udalak ematen dituen zerbitzuak, bai haiek emateko modua agertzen dira.

Udal zerbitzuak	Udala	Merkataritza sozietate osoa	Mankomunitatea	Zerbi. Kontr.	Merkataritza sozietate mistoa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Genero indarkeriaren prebentzioa				X	
Lehen eta bigarren hezkuntzarako hezkidetzeta-programak				X	
Atezaintza	X				
Berdintasun zerbitzuak	X				
Tokiko enplegu eta garapen zerbitzuak	X				
Kirolak	X				
Kultura	X				
Musika eskola	X				
Hirigintza	X	X			X
Lorategiak	X			X	
Uraren ziklo integrala			X		
Hiri-hondakinak			X		
Garraio publikoa			X		
Haur hezkuntzako zentroaren zerbitzua, 0-3 urteko zikloa	X			X	
Udal eraikinen garbiketa eta mantentze-lanak				X	
Bide garbiketa	X				
Kirol instalazioen funtzionamendua				X	
Kirol instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa				X	
Udal liburutegia eta ludoteka	X			X	
Familia laguntzarako zentroa				X	
Hiriko udalekuaren kudeaketa	X			X	
Diru-bilketa exekutiboa	X			X	

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoak funtsean osagai hauek ditu: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Udalaren 2014ko aurrekontua 2014ko apirilaren 10ean onetsi zen behin betiko (2014ko martxoaren 6ko osoko bilkuran); hau da, legez ezarritako epetik kanpo.

2014ko ekitaldiko kontu orokorra 2014ko irailaren 1ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin batean jaso da Udalak 2014ko ekitaldiko kontuekin egindako oroitidazkia.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Eguesibarko Udaleko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legerekin eta Nafarroako Kontuen Gamberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Eguesibarko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Eguesibarko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz betiere.

- Eguesibarko Udalak 2014an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.

- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.

- Ganbera honek 2013ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. NORAINOKOA

Eguesibarko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko kontu orokorrak honako elementu nagusiak biltzen ditu:

- Erakundearen beraren kontua: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Andacelay SL hirigintza sozietatearen urteko kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu-hartzaitzaren txostena, Andacelay SL hirigintza-sozietatearen kontuak eta Gestión y Promoción Egüés 21 II SLren 2012tik 2014ra bitarteko ekitaldietako urteko kontuak.

Zorraren egoeran ez dira aipatzen udal-sozietateen kreditu-operazioak.

Gestión y Promoción Egüés 21 II SL sozietate mistoari dagokionez, 2012tik 2014ra bitarteko ekitaldietako urteko kontuak, beren auditoria-txostenekin, informazio osagarri gisa erantsi dira Udalaren kontu orokorraren espedientean, zeren eta, aurreko txostenean esaten zen bezala, formulatu gabe eta auditatu gabe baitzeuden.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazioaren edo auditoriaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatu dira; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertze teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia eta aplikatu diren oinarritzko prozedura administratiboak aztertu dira; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak ere aztertu dira.

Horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago ezen 2011n ikerketa batzorde bat sortu zela azken urteetan bai Udalak, bai haren sozietate publikoek egin dituzten kontratazio- eta kudeaketa-prozedura batzuk direla eta. Batzorde horren ondorioak Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zituen 2012ko maiatzean, eta ondorio horiek Agoizko Epaitegiari, fiskaltzari eta Foru Ogasunari helarazi zitzaizkien, jarduketa horietatik erator litezkeen erantzukizunak erabaki zitzaizkien.

Udal sozietateei dagokienez, 2014ko ekainaren 26an, Kontuen Ganberak "Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketa (2004-2013)" izenburuko txostena argitaratu zuen. Parlamentuak eskatuta egin zuen txostena. Hartan, agerian jarri zen erantzukizun juridikoen mota desberdinak daudela, Udalak egindako hirigintza-kudeaketaren ondoriozkoak.

Udal sozietate horien kontuei dagokienez, Andacelay SL sozietatearen 2014ko urteko kontuak direla eta, kanpoko auditoreek auditoria finantzarioko txostena egin dute.

Gestión y Promoción Egüés 21-II SL sozietate mistoak 2012ko eta 2013ko kontuak egin eta onetsi ditu 2015eko ekainaren 29an eta 30ean, hurrenez hurren; 2014koak, berriz, Akziodunen Batzarrak 2015eko uztailaren 2an onetsi zituen. Kanpoko auditoreek egindako auditoria-txosten bat badute.

IV. IRITZIA

Eguesibarko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetakoko V. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Alkatea da kontu orokorrak egiteko eta aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptua, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako **iritzia** eratorzen da.

IV.1. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA

IRITZIA

Udalaren 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki jasotzen ditu alderdirik behinenetan gas-tuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egin dituen eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Finantzen fiskalizazioari buruz daukagun irudian eraginik izan gabe, zalantza batzuk badaude ikerketa batzorde horrek aurrera eraman dituen jarduketak direla-eta Udalak nozi litzakeen ondorio ekonomikoak kuantifikatzeari buruz eta Kontuen Ganberaren txostenari buruz.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Egindako lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2014ko ekitaldian Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. UDALAREN 2013ko EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIOA

Udalbatzako Osoko Bilkurak hasierako onespina eman zion 11,7 milioi euroko gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena zuen aurrekontu orekatu bati. Aurreikuspen hori 350.000 euro igo da aurrekontu-aldaketan bitartez –ehuneko hiruko igoera, hain zuzen–. Behin betiko aurreikuspenak, beraz, 12 milioi eurokoak dira bai diru-sarrerei, bai gastuei dagokienez.

Aurrekontu-aldaketak nagusiki langileen gastuen eta inbertsio errealen kontusail batzuk handitzeko egindako kreditu bereziei, kreditu-transferentziei eta kreditu-osagarriei dagozkie.

Aitortutako betebeharrak 9,5 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 79ko betetze-maila izan dute.

Betetze-ehuneko handiena duten gastu-kapitulua langileenak (ehuneko 98) eta ondasun eta zerbitzuen erosketena (ehuneko 96) dira. Gastu finantzarioen kapitulua kontuan hartu gabe, bere zenbateko txikia dela eta, betetze maila txikiena duena inbertsioena da, ehuneko 24ko betetzea baitu. Portzentaje txiki hori neurri batean azaldu daiteke haur hezkuntzako zentroa ez delako egin udal aurrekontuaren kargura.

Aitortutako zuzenekoek 10,3 milioi egiten dute, ehuneko 86ko betetze-mailarekin, funtsean finantza-pasiboen kapituluaren betetzea nulua izan delako, aurreko atalean aipatutakoa dela-eta zorrik hartu ez delako.

Diru-sarrera aipagarrienen kapituluak –tributu bidezkoenak eta transferentzia bidezkoenak– 100eko 100etik gorako betetzea izan dute kasu guztietan.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak eta inbertsio errealak gastu guztien ehuneko 93 eta ehuneko zazpi dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 98 dira. Tributu bidezko diru-sarrerak (I. kapitulutik III. kapitulura) gastu arruntan (I. kapitulutik IV. kapitulura) ehuneko 66 egiten dute 2014an; 2013an, berriz, ehuneko 59 ziren. Horrek esan nahi du Udalaren finantza-egitura hobetu egin dela.

Tributu bidezko diru-sarrerak Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 56 dira 2014an; 2013an, berriz, ehuneko 55 ziren. Transferentziek diru-sarreraren ehuneko 42 egiten dute (2013an ehuneko 41 ziren) eta ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak, 2014an, diru-sarreraren ehuneko bi egiten dute (2013an, ehuneko lau ziren).

Gastuen arloan, langile-gastuek gastu guztien ehuneko 47 dira 2014an (2013an ehuneko 48 ziren). Bestelako gastu arruntak ehuneko 46 dira (2013an, ehuneko 40 ziren), eta inbertsioen arloko gastua ehuneko zazpi da 2014an (ehuneko hiru zen 2013an).

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	47	Tributu bidezko diru-sarrerak	56
Bestelako gastu arruntak	46	Transferentziak	42
Inbertsio errealak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	2
	100		100

Hona Udalaren 2014rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2013tik izan duen bila-kaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2014	2013	Aldea (%), 2014/2013
Aitortutako betebeharrak, guztira	9.469.895	9.201.715	3
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	9.469.895	9.201.715	3
Likidatutako eskubideak, guztira	10.327.905	9.527.151	8
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	10.257.331	9.493.417	8
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	8.800.195	8.886.133	-1
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	8.799.678	8.882.232	-1
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	669.699	315.582	112
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.251.176	9.425.062	9
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	5.794.214	5.246.440	10
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	76.729	102.089	-25
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	% 42	% 42	
Zergen bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	% 66	% 59	11
Saldo ez-finantzarioa	787.436	291.702	170
Aurrekontu-emaiza doituak	902.855	325.436	177
Aurrezki gordina	1.451.497	542.830	167
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	517	3.901	-87
Aurrezki garbia	1.450.980	538.929	169
Zorpetze-mailaren ehunekoa	% 0	% 0	
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	% 14	% 6	133
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	% 14	% 6	133
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.681.298	988.518	70
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.681.298	988.518	70
Zor bizia	0	0	

Izaera arrunteko gastuek ehuneko 1 egin dute behera, funtsean ondasun arrunten eta zerbitzuen kapituluak behera egin duelako; diru-sarrera arrunten kapituluak, berriz, ehuneko bederatzi egin du gora. Igoera hori zor zaio, batez ere, zuzeneko zergen diru-bilketan izan den igoerari, bai eta transferentzia arrunten kapituluari ere.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa 787.436 euro positiboa da; 2013an, ordea, 291.702 euro positiboa izan zen. Saldo horrek erakusten digu diru-sarrera ez-finantzarioak nahikoak izan direla izaera bereko gastuak finantzatzeko.

2014ko ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza bateratu doituak 902.855 euroko superabita erakutsi du. 2013an, emaitza 325.436 euroko superabita izan zen; horrek esan nahi du emaitzak 577.419 euro egin duela gora, 2013koa baino ehuneko 177 handiagoa baita.

Bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak nabarmen egin dute hobera 2013koekin alderatuta.

Udalaren gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 2014an 1.681.298 eurokoa da; 2013an, berriz, 988.518 eurokoa zen.

2014ko abenduaren 31n, Udalak ez du zorrik inongo finantza-entitaterekin.

Eguesibarko Udalak 2006-2014 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kapitulua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Zuzeneko zergak	1.403.465	1.626.838	1.917.280	2.515.443	2.612.630	2.469.072	2.929.816	3.503.404	3.910.657
2	Zeharkako zergak	10.239.250	4.622.638	1.269.407	1.063.717	1.631.306	808.142	213.549	270.486	254.860
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	1.294.329	1.070.383	1.063.166	1.125.931	1.379.449	1.387.080	1.250.683	1.472.550	1.628.696
4	Transferentzia arruntak	1.465.831	1.754.000	2.101.282	2.396.374	2.693.349	3.116.127	3.241.973	3.914.883	4.363.644
5	Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	109.507	215.880	191.703	74.662	318.813	221.962	40.508	263.739	93.318
6	Inbertsio errealeen besterentzea	3.270.588	0	2.500	0	200	0	20.000	3.500	6.155
7	Kapital-transferentziak	284.501	96.009	187.506	1.438.751	1.018.119	216.674	112.068	64.855	0
8	Finantza-aktiboak								33.734	70.574
9	Finantza-pasiboak	600	674	0	0	0	0	0	0	0
Guztira		18.068.071	9.386.422	6.732.844	8.614.878	9.653.866	8.219.057	7.808.597	9.527.151	10.327.905

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kapitulua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Langile-gastuak	2.529.715	2.902.914	3.179.843	3.531.622	3.646.363	3.836.810	3.860.347	4.448.703	4.439.036
2	Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	2.048.851	2.510.660	2.836.870	2.752.678	2.895.451	3.548.193	3.568.781	3.697.993	3.525.039
3	Finantza-gastuak	108	15	0	0	238	0	138	3.901	517
4	Transferentzia arruntak	495.138	502.124	588.296	581.507	766.975	701.722	690.415	735.536	835.603
6	Inbertsio errealak	4.605.664	6.250.449	2.243.488	1.601.128	2.604.820	1.221.552	428.141	305.582	669.699
7	Kapital-transferentziak	7.173	21.028	8.917	4.949	8.551	304.582	23.582	10.000	0
8	Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9	Finantza-pasiboak	360.607	370.890	360.607	360.607	420.607	0	0	0	0
Guztira		10.047.256	12.558.080	9.218.021	8.832.491	10.343.005	9.612.859	8.571.404	9.201.715	9.469.895

Udala 2006an 5.379 biztanle izatetik 2014an 19.014 biztanle izatera pasa da. Igoera hori, logikoa denez, lotuta egon da inbertsio-jarduera handi batekin, eta igoera nabarmenak eragin ditu herriarekin lotutako diru-sarreretan eta gastuetan. Halaber, 2006an eta 2007an aipagarriak dira inbertsioetan egindako gastuak eta zeharkako zergen bidezko diru-sarrerak.

Ikusten da zuzeneko zergek etengabe egin dutela gora, 2006ko ekitaldian 1.403.465 eurokoak izatetik 2014an 3.910.657 eurokoak izatera pasa baitira (ehuneko 178 egin dute gora); zeharkako zergek, berriz, behera egin dute, eta 2006an 10.329.250 eurokoak izatetik 2014an 254.860 eurokoak izatera pasa dira (ehuneko 97,53 egin dute behera).

Gastuei dagokienez, ikusten da aipatutako aldian antzeko zenbatekoei eutsi zaiela, baina osaketa oso desberdinarekin. Hartara, 2006an eta 2007an inbertsioak oso aipagarriak dira; gero langile-gastuak eta ondasun arruntan eta zerbitzuen arloko gastuak gora egiten joan dira.

Azken ekitaldietan, diru-sarreretan eta gastu arruntan arteko desoreka bat gertatua zen. Desoreka hori hirigintza-jarduketetatik heldutako diru-sarrerekin konpentsatzen zen. 2013ko ekitaldia lehenengoa da non, hirigintzako diru-sarrera adierazgarriak falta izanda, diru-sarrera arruntak nahikoak izan diren gastu arruntak finantzatzeko; ekitaldiaren amaieran, aurrekontu-emaizta positiboa izan da, eta diruzaintza-gerakinak gora egin du aurreko ekitaldikoarekin alderatuta; badirudi egoera hori finkatu egin dela 2014an.

Laburbilduz, 2013an eta 2014an Udalak diru-sarrera gehiago sortu ditu, eta horri gehituta gastuei eutsi egin diela, aurreko ekitaldietatik arrastaka zeharren egoerari buelta eman dio, eta aurrekontu-emaizetan eta diruzaintza-gerakinean emaitza positiboetara itzuli da.

2013an aurrezki gordin positiboa lortuta izan zen aldaketaren ondoren, eta Udalak zorpetzerik eduki gabe jarraitzen duenez, badirudi 2013an Udalaren egoera ekonomikoan sortutako joera-aldaketa 2014an finkatu egin dela, aurrezki gordin positiboa eta diruzaintza-gerakin positiboa lortu baititu.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2014ra.

Adierazlea	2011	2014	Aldea (%), 2014/2011
Zorpetze ahalmena	% -4,68	% 14	-
Inbertsio indizea	% 12,71	% 7,07	-44
Gastu arrunta biztanleko	499 €	463 €	-7
Tributu diru-sarrerak biztanleko	288 €	305 €	6

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2014ra gastu arruntek behera egin dute, eta tributu bidezko diru-sarrek gora egin dute. Horrekin, zorpetze-ahalmena negatiboa izatetik positiboa izatera pasa da.

IV.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEKO ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den kalkulatu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	787.436
Doikuntzak	-93.991
Finantzatzeko ahalmena	693.445

Eguesibarko Udalak bete egiten ditu bai finantza-egonkortasunaren baldintzak, bai gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013an, ehuneko 1,5 egin zuen gora). Halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zorrik ez duelako.

Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu egungo krisi ekonomikoko arriskuen ondorioz dagoen egoera, egoera horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak.

Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honek 2013ko ekitaldiari buruz emandako txostenari dagokionez:

1. Honako gomendio garrantzitsuak ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:
 - *Dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeko prozedura eraginkorrak ezartzea, eta dokumentazio osoa artxibatzeko artxibo orokor bat sortzeko aukera aztertzea.*
 - *Administrazioko alor bakoitzeko arduradunek, espedienteak eta egin beharreko jarduerak direla-eta araudi indardunak eskatzen duen dokumentazioa behar bezala betetzen dela ikuskatzea.*
 - *Kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan onartzea.*
 - *2015ean, onetsi egin dira onetsi gabe zeuden sozietate publikoen kontuak.*
2. Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:
 - *Urtez urte Udalaren aurrekontu orokor bakarra onartzea, indarreko legedian aurreikusitako epearen barruan, Udalaren kudeaketarako tresna eraginkorra izan dadin.*
 - *Udallerriak bizi izan duen populazio-igoera dela-eta, gaur egungo zerbitzuak ematearen ondorioz nahiz inbertsio berrien ondorioz alde horrek izanen duen eragina balioestea.*
 - *Prozedura berriak hastea iraupenak kontratazio araudian ezarritako muga gainditzen duenean.*
 - *Udal zerbitzuak eskaintzeko hain garrantzitsuak diren obren plangintza eta kudeaketa Udalak berak egin, kontrolatu eta finantzatu behar ditu, gure iritzian.*

V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2014ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak:

V.1. 2014ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	3.648.110	0	3.648.110	3.910.657	107	3.579.644	331.013	8
2. Zeharkako zergak	225.000	0	225.000	254.860	113	249.274	5.586	28
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.311.600	0	1.311.600	1.628.696	124	1.539.301	89.395	12
4. Transferentzia arruntak	4.094.800	0	4.094.800	4.363.644	107	4.234.236	129.409	2
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	794.800	0	794.800	93.318	12	92.002	1.316	11
6. Inbertsio errealeen besterentzea	52.500	0	52.500	6.155	12	6.155	0	0
8. Finantza-aktiboak	67.000	350.700	417.700	70.574	17	70.574	0	0
9. Finantza-pasiboak	1.500.000	0	1.500.000	0	0	0	0	0
Guztira	11.693.810	350.700	12.044.510	10.327.904	86	9.771.186	556.719	6

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	4.425.315	104.550	4.529.865	4.439.036	98	4.366.117	72.919	2
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.767.310	-76.900	3.690.410	3.525.039	96	3.188.922	336.117	11
3. Interesak	3300	-100	3.200	517	16	517	0	0
4. Transferentzia arruntak	1.002.685	2.550	1.005.235	835.603	83	619.806	215.797	35
6. Inbertsio errealak	2.495.200	320.600	2.815.800	669.699	24	534.697	135.002	25
Guztira	11.693.810	350.700	12.044.510	9.469.894	79	8.710.059	759.835	9

V.2. 2014ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	9.527.151	10.327.905
- Aitortutako betebeharrak	9.201.715	9.469.895
= Aurrekontu-emaiza	325.436	858.010
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak - Erantsitakoa	0	44.845
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
= Aurrekontu-emaiza doitua	325.436	902.855

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	747.158	1.651.189
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	629.327	561.252
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.273.080	1.400.485
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	50.171	(*) 981.767
+ Ordainketen itzulketak	0	13
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-1.728	-2.875
- Bilketa zaileko eskubideak	-1.203.692	-1.289.453
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	-1.444.721	-1.172.444
- Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-807.995	-759.835
- Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-38.454	-47.256
- Diru-sarrerren itzulketak	-18.782	-5.018
+ Aplikatzeko dauden gastuak	132	132
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	-579.622	-360.467
+ Diruzaintzako funts likidoak	1.686.080	1.202.553
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	-	-
(=) Diruzaintza-gerakina, guztira	988.517	1.681.298
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	988.517	1.681.298

(*) Kontusail honek 2014an 950.000 euro dauzka, epe finkoko gordailu bati dagozkionak

V.4. UDALAREN EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa

Deskribapena	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
A Ibilgetua	63.506.028	62.978.975
1 Ibilgetu materiala	46.809.327	46.383.808
2 Ibilgetu ez-materiala	515.864	488.427
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	16.106.995	16.032.898
4 Herri-ondasunak	36.241	36.241
5 Finantza-ibilgetua	37.601	37.601
C Zirkulatuzailea	4.146.202	3.638.791
7 Izakinak	0	-
8 Zordunak	2.943.517	1.952.578
9 Finantza-kontuak	1.202.685	1.686.213
Aktiboa, guztira	67.652.230	66.617.766

Pasiboa

Deskribapena	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
A Ondare garbia	66.476.779	65.171.185
1 Ondarea eta erreserbak	59.491.778	59.199.362
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.403.716	390.538
3 Kapitaleko diru-laguntzak	5.581.285	5.581.285
C Epe luzeko hartzekodunak	0	0
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	-	-
D Epe laburreko hartzekodunak	1.175.451	1.446.581
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.172.576	1.444.853
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	2.875	1.728
Pasiboa, guztira	67.652.230	66.617.766

V.5. UDALAREN IRABAZIEN ETA GALEREN KONTUA.

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
3 Hasierako izakinak			3 Bukaerako izakinak		0
39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntzak (ekitaldiko hornikuntza)			39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (aurreko ekitaldiko hornikuntza)		0
60 Erosketak			70 Salmentak	797.309	725.322
61 Langile-gastuak	4.494.520	4.549.156	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	838.502	795.968
62 Finantza-gastuak	517	3.901	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	3.160.956	2.885.201
63 Tributuak	0	323	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	666.234	583.371
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	3.482.635	3.597.218	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
65 Gizarte prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	4.363.643	3.914.883
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	338.328	305.317
67 Transferentzia arruntak	835.603	735.536	78 Bestelako diru-sarrerak	86.204	248.734
68 Kapital-transferentziak	34.993	10.000	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	-	-
69 Amortizazioetarako eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoak	0	0		-	-
	0	0		-	-
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.402.908	562.662	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-
Guztira	10.251.176	9.458.796	Guztira	10.251.176	9.458.796

Ekitaldiko emaitzak

		2014	2013			2014	2013
80	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-	80	Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	1.402.908	562.662
82	Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo zorduna)	-	148.907	82	Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo hartzekoduna)	73.660	-
83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	72.851	23.217	84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	-	-
89	Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.403.717	390.538	89	Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	-	-
		1.476.568	562.662		Guztira	1.476.568	562.662

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2014ko ekitaldirako aurrekontuari 2014ko martxoaren 6ko osoko bilkuran eman zion Udalak behin-behineko onespena, eta 2014ko apirilaren 10ean hartu zuen indarra, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean. Onespen hori, beraz, araudi indardunear ezarritako epeaz kanpo eman da.

Udalaren kontu orokorra 2015eko irailaren 1eko osoko bilkuran onetsi zen.

Andacelay SL sozietate publikoaren 2014ko ekitaldiko kontuak 2015eko apirilaren 29an egin dira, eta Batzar Nagusiak 2015eko ekainaren 10eko saioan onetsi ditu.

“Gestión y Promoción Egüés 21 II SL” sozietateren kontuak, 2012-2013 eta 2014 urteetakoak, 2015eko ekainean egin dira. 2012koak eta 2013koak 2015eko ekainaren 29an eta 30ean onetsi dira, eta 2014koak, berriz, 2015eko uztailaren 2an.

Ez da aurkitu 2014ko fakturarik 2015eko aurrekontuari egotzi zaionik.

Hornitzaileei egindako ordainketen batez besteko aldi baten azterketa egin ondoren, ondorioztatzen da Udalak bete egin dituela hornitzaileei ordaintzeko epeak, Merkataritza-eragiketen Be-rankortasuna Eragozteko Neurriei buruzko 15/2010 Legean ezarritakoak.

Udala zenbait prozedura judizialetan sartuta dago. Aholkularitza juridikoaren txostenari jarraituz, honako hauek atera ditugu, zenbateko ekonomiko aipagarria baitute:

a. Udalari gastu handiagoa eragin diezaioketen auziak.

Kategoria horren barruan, auzien arrazoiak hiru modutakoak dira, betiere hirigintzaren edo tributuen esparruaren barruan. Auzi horiek Udalaren aurka ebatziko balira, honako ordainketa hauek eragin litezketek:

- Udalari eskatutako ondare-erantzukizuna (83/2011 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa). Epaia Udalaren aurkakoa izanen balitz kostua 88.000 eurokoa izanen litzateke.

- Udalak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren zerga-arloko ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsoa. Udalak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 2014ko azaroaren 3ko 3219 ebazpenaren aurka aurkeztutako 4/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa dela eta. Epaia Udalaren aldekoa ez balitz, kostua 73.679 eurokoa izanen litzateke.

- Uharteko Udalak Eguesibarko Udalaren aurka aurkeztutako 65/2015 auzi-errekurtsoa, Erri-pagañako azalera-eskubideen besterentzeak direla eta. Kopurua 270.091 eurokoa da, eta 2015ean ordaindu zuen Uharteko Udalak. Errekurtsoa Uharteko Udalaren alde ebatzen bada, ez du eraginik izanen Eguesibarko aurrekontuan, zeren eta diru-sarrera aurrekontuz kanpoko gisa erregistratu baita.

b. Udalari diru-sarrera handiagoak ekar diezazkioketen auziak.

Beste auzi batzuetan bezala, arrazoiak hirigintzakoak edo zerga arlokoak da.

Auzi horiek Udalaren alde ebatziko balira, honako diru-sarrera hauek eragin litezketek:

- Sarrigurengo kirol hiriko zenbait obretan antzemandako ezkutuko akatsak (85/2014 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa). Errekurtsoa Udalaren aldekoa balitz, 135.065 euroko diru-sarrerak ekarriko lituzke. 2015ean, Udalaren aurka ebatzi da hori; horrenbestez, berme gisa emandako abala itzuli egin da eta, horrenbestez, auziak ez du eraginik aurrekontuan.

- Eguesibarko Udalak Uharteko Udalaren aurka aurkeztutako 145/2015 auzi errekurtsua, Erripagañako udalez gaindiko proiektu sektorialaren EIOZean likidazioak ez betetzeagatik. Errekurtsua Udalaren aldekoa balitz, 595.000 euroko diru-sarrerak ekarriko lituzke.

Gure gomendioak:

- *Urte urte Udalaren aurrekontu orokor bakarra onartzea, indarreko legedian aurreikusitako epearen barruan, Udalaren kudeaketarako tresna eraginkorra izan dadin.*

- *Udalaren kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan eta dokumentazioarekin onestea.*

- *Zorren egoera-orrian aurkeztea Udalaren partaidetza duten merkataritza-sozietateei buruzko informazioa.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen atalaren gastuak 4,4 milioi euro egiten du; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 46,88 eta gastu arrunten ehuneko 50,44.

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, oro har kapitulu hau berdin mantendu da, honako xehetasun hauen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%), 2014/2013
	2014	2013	
Goi-karguak	53.177	49.489	7
Behin-behineko langileak (Udaltzaingoaren burua)	35.484	0	
Funtzionarioak	1.530.179	1.259.339	22
Lan-kontratudun finkoak	27.249	25.735	6
Aldi baterako lan-kontratudunak	1.500.593	1.777.445	-16
Gizarte-zamak	1.292.354	1.336.695	-3
1. kapitulua, guztira	4.439.036	4.448.703	0

2014ko martxoaren 19an, Udaltzaingoko burua izendatu zen izendapen askeko postu gisa.

Langile funtzionarioen gastuak, 2013koaren aldean, gora egin zuen, lan-kontratupeko 15 langile finko funtzionario bihurtu baitziren; lan-kontratupeko langileen kopurua proportzio berean jaitsi zen. Prozesu hori 2013an gauzatu zen, maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legea onestearekin. 15 langile horiek funtzionario izaera hartu zuten, eragin guztietarako, 2013ko ekainaren 30etik.

2014ko ekainaren 26an, Konstituzio Auzitegiak balio gabetzat jo du prozesu hori arautzen zuen 19/2013 Foru Legea.

2014ko plantilla organikoaren behin betiko onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin heldu zen, 2014ko ekainaren 20an. Onetsitako plantillak, guztira, 100 lanpostu dauzka, guztiak ere funtzionarioek bete beharrekoak. 2014ko urtarrilaren 1ean, guztira 53 lanpostu daude hutsik; horietatik gehienak administrazio-kontratuak duten langileekin bete dira.

Plantillak 100 lanpostu jasotzen ditu; horietatik, 53 hutsik daude. Lanpostu huts horietatik gehienak administrazio-kontratupeko langileekin betetzen dira.

Udaleko lanpostuak arlo hauei atxikita daude:

Arloak	Kopurua
Zerbitzu orokorrak	13
Polizia	21
Gai ekonomikoak eta giza baliabideak	4
Kultura eta euskara	7
Kirola	1
Gizarte ongizatea eta berdintasuna	17
Hirigintza eta ingurumena	21
Hezkuntza	16
Guztira	100

Udaleko langileak honako hauek ziren 2014ko abenduaren 31n:

	Funtzionarioak	Lan-kontratadun finkoak	Kontratu adminis-tratiboa dutenak	Lan kontratu-peko langileak	Guztira
Zerbitzu orokorrak	4		8	2	14
Hirigintza	3		1		4
Askotariko zerbitzuak	4		9	1	14
Polizia	16		2		18
Lorezaintza eta ingurumena	3		6	2	11
Ekonomiko finantzarioak	3				3
Gizarte zerbitzuak	3		11	4	18
Musika eskola	6		9	4	19
Kultura		1	4	1	6
Kirolak	1				1
Gizarte enplegu babestua				13	13
Eszedentzia*	2				2
Guztira	45	1	50	27	123

*Eszedentziak 2 polizia dagozkie.

2014an, langile funtzionarioak edo lan-kontratupeko langile finkorik kontratatze inongo prozedurarik ez da izan Udalean.

2014tik egindako prozedurak aztertzeraz jo dugu:

- Gizarte langile bat, euskaraz dakiena, aldi baterako kontratatze izangaien zerrendak egiteko hautapen-proben deialdia.
- Ludotekako laguntzailearen lanpostua, euskarazkoa, aldi baterako betetzeko izangaien kontratazio-zerrendak egiteko hautapen-proben deialdia
- Lorezaintzako peoiak aldi baterako kontratatze izangaien zerrendak egiteko hautapen-proben deialdia
- Administrazio laguntzaileen lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien bi zerrenda, horietako bat euskaraz dakitenena, egiteko hautapen-proben deialdia

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetzeko lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla ondorioztatzen da, oro har; halere, honako akatsak aurkitu ditugu:

- 2013an indarra duen hitzarmen kolektiboak jai-eguntzat jotzen zuen larunbataren 00:00etatik igande edo jai-egunaren ondorengo egunaren 07:30era lan egindako aldia. Jai eguntzat hartze hori luzeagoa da Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritakoa baino. 2014ko ekainean onetsitako hitzarmen kolektibo berriak, 2014rako eta 2015erako indarrean dagoenak, jai-egunak direla-eta, aurreko hitzarmeneko arauari eusten dio.

- Langileen opor eta baimenen gaineko kontrola MS Officeren tresnen bitartez egiten da, baina horrek ez du aukerarik ematen ordutegiak kontrolatzeko edo txostenak egiteko; langileen arlorako berariazko tresnek emanen lukete horretarako aukera.

Kontratazioak direla-eta egindako azterketatik, ondorioztatzen da oro har zuzen eginda dau dela.

Gure gomendioak:

- *Tresna bat ezartzea kasu guztiak hartuko dituen eta langileen kontrola erraztuko duena, haien kontrolari dagokienez.*

- *Hitzarmen kolektiboa egokitzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileria-
ren estatutuan ezarritakoaren arabera.*

- *Dagoen behin-behinekotasun maila handia saihesteko, eta araudi indardunak horretarako bidea ematen duen neurrian, enplegu eskaintza publikoan sartzea aurrekontuan zuzkidura duten lanpostu huts guztiak.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 3,5 milioi euro egin dute 2014ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 37 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 40 egiten dute. 2013. urtearen aldean, ehuneko 5 egin dute behera.

Behera egite hori zor zaio, funtsean, 2013ko ekitaldian 145.198 euroko gastua erregistratu izateari. Kopuru hori heldu da haur-eskolaren erabilerarako ikasgela batzuk alokatzetik. 2014an, ordea, halako gasturik ez da sortu.

Azterketatik eta kontratu indardunen gainean edo/eta 2014an amaitutako gainean egindako-
tik ondorioztatzen da Udalak nahiko ongi betetzen duela kontratazioaren alorrean aplikatzekoa den araudia, honako salbuespen hauekin:

2014ko ekitaldian, Udalak udal egoitzen garbiketa zerbitzua kontratatzeko prozedurari heldu dio.

2014		Urteko ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa			
Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen- prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituz- tenak	Esleipenaren zenba- tekoa (BEZa kenduta)
Udal eraikinen garbiketa	Laguntza kontratua	Irekia	250.000	5	216.382

Kasu batzuetan, aldeak ikusi dira kontratuan ageri den fidantzaren zenbatekoaren eta jarritako fidantzaren zenbatekoaren artean, azken hori izaki zuzena.

Gomendatzen dugu kontratuan jarri beharreko fidantzaren zenbatekoa aipatzea, araudian ezarritakoari jarraituz.

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntengatiko gastuak 0,83 milioi eurokoak izan dira; 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 9 dira.

Honakoa da transferentzia arruntengatiko 2014ko eta 2013ko gastuak alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%), 2014/2013
	2014	2013	
Foru Komunitateari	31.603	31.602	0
Toki entitateei	327.463	305.691	7
Kirol klub eta elkarteei	142.394	106.257	34
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	334.144	291.986	14
Transferentzia arruntak	835.604	735.536	14

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 14 egin dute gora, funtsean eskualdeko garraioaren kuotak gora egin duelako, kolektibo sozialentzako eta lankidetzaproiektuetarako diru-laguntzek gora egin dutelako eta 0-3 urtekoentzako ibarretik kanpoko zentroetara eramandako bizilagunentzako laguntzarenegatik.

Toki entitateentzako diru-laguntzen barruan, Udaleko kontzejuen jaiak finantzatzera bideratutako 57.000 euro egotzi dira (2013ko kopuru bera), bai eta eskualdeko garraioa finantzatzeko 267.000 euro ere 243.000 euro 2013an).

Honakoak dira 2014an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak	
	2014	2013
Oinarrizko gizarte-zerbitzuarentzako laguntzak	141.864	160.164
Lankidetzaproiektuak	62.000	49.373
Kontzejuei jaiak antolatzeko emandako laguntzak	55.460	56.566
Kirol klubentzako laguntzak	52.750	46.989
Udalaren kirol eskoletarako diru-laguntza	48.772	34.269
Ibarretik kanpoko 0-3 urtekoentzako diru-laguntzak	35.429	13.789
Guztira	396.275	361.150

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da Udalak indarrean dagoen araudia behar bezala bete duela.

Udalak ez du ez Ordenantza Orokorrik ez diru-laguntzen Plan estrategikorik; edonola ere, diru-laguntzak ordenantza berezien bitartez arautzen ditu.

Gure gomendioak:

- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

VI.5. INBERTSIOAK

2014. urterako aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (2.815.800 euro) ehuneko 23,78 bete da, eta 669.699,24 eurora iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldirako aitortutako betebeharrak guztien ehuneko zazpi.

Halaber, aurreikusita zegoen beste ikastetxe bat egitea, 1.500.000 euroko hasierako aurreikuspenarekin. Azkenean, Nafarroako Gobernuak eginen du.

2013an, inbertsioak 364.117 eurokoak izan ziren; hori dela eta, 2014an ehuneko 120 handitu dira.

Honakoak dira 2014an egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Zenbatekoa (eurotan)
Futbol zelaiko belarra birjartzea	101.173
Kirol-instalazioen erreforma	29.748
Kontzejuetan egindako obrak	66.623
Baratze sozialak	74.097
Sarrigurengo ikastetxe publikoan egindako inbertsioa	55.080
Oinarrizko gizarte-zerbitzuarentzako bulegoak handitzea	51.332
Seinaleak eta altzariak	50.305
Bideak egokitzea	27.398
Polizia-ibilgailua	19.848
Leihatila bakarra	19.516
Lorategietarako makineria	18.554
Guztira	513.674

Horietatik guztietatik, beheragoko taulan aipatzen diren espedienteak aztertu ditugu:

2014

Inbertsioen kontratazioa

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Bide segurtasuna	Obra eta AT	Irekia	120.000,00	2	66.000,00
Futbol zelaiko belarra birjartzea	Obra	Irekia	121.100,00	7	101.172,77
Baratze ekologikoak	Obra	Irekia	84.419,71	14	55.995,59
Oinarrizko gizarte-zerbitzuaren obrak	Obra	Irekia	37.191,07	7	33.772,50
Kirol-instalazioen erreforma	Obra	Irekia	30.000,00	5	22.428,00
Sarrigurengo ikastetxe publikoaren itxitura	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua	41.303,27	7	35.281,25
Sarrigurengo Ikastetxe Publikoko kirol pisten itxieraren 2. fasea	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua	52.730,58	5	36.911,00

2014an amaitutako obren exekuzioa aztertuta, ondorioztatzen da Udalak nahiko ongi betetzen duela kontratazioaren alorrean aplikatzekoa den araudia.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubideak 10,3 milioioak izan dira; ehuneko 99 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkie eta ehuneko 1, berriz, kapital-eragiketei.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (5,8 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (4.4 milioi eurokoak) nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 86koa izan da. Kapitulu guztiek ehuneko 100etik gorako betetzea izan dute, ondare bidezko diru-sarreraren kasuan, non ehuneko 12ko betetzea egon baita, eta finantza-pasiboen betetzea izan ezik; azken horretan, 1,5 milioiko betetzea aurreikusita zegoen, baina ez da gauzatu.

2013ko ekitaldian, 226.000 euroko zenbateko bat erregistratu zen, Andacelay SL hirigintza sozietatetik erreserben kargura jasotako dibidendu bati dagokiona. 2014an, hirigintza-sozietate horrek ez zuen dibidendurik banatu.

2013. urtearen aldean, aitortutako eskubideek ehuneko 8 egin dute gora. Hona xehakatzea:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%), 2013/2014
	2014	2013	
1. Zuzeneko zergak	3.910.657	3.503.404	12
2. Zeharkako zergak	254.860	270.486	-6
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.628.696	1.472.550	11
4. Transferentzia arruntak	4.363.644	3.914.883	11
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	93.318	263.739	-65
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.251.175	9.425.062	9
6. Inbertsioen besterentzea	6.155	3.500	76
7. Kapital-transferentziak	0	64.855	-100
8. Finantza-aktiboen aldea	70.574	33.734	109
Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6. kapitulutik 9.era)	76.729	102.089	-25
Diru-sarrerak, guztira	10.327.904	9.527.151	8

2014ko ekitaldian nabarmentzekoa da diru-sarrera arruntek ehuneko bederatzi egin dutela gora.

Ondoko taulan ikusten da diru-sarrera arrunt hauek eta EIOZak azkeneko urte hauetan izan duten bilakaera:

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Diru-sarrera arruntak, EIOZa kenduta	4.667.101	5.273.431	6.112.411	7.004.240	7.194.240	7.462.980	9.154.576	9.996.315
EIOZa	4.622.638	1.269.407	1.063.717	1.631.306	808.142	213.549	270.486	254.860
Diru-sarrera arruntak	9.289.739	6.542.838	7.176.128	8.635.546	8.002.382	7.676.529	9.425.062	10.251.175

Kapital-eragiketek hondarrezko garrantzia dute diru-sarreraren guztizkoan, zeren eta inbertsiorik ez dagoenez, ia ez baita kapitaleko diru-laguntzarik jasotzen

Ondorengo taulan, udal zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%), 2014/2013
	2014	2013	
Lurraren gaineko kontribuzioa	2.652.437	2.304.006	15
Ibilgailuak	666.127	583.371	14
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	338.328	305.319	11
JEZa	253.658	310.708	-18
EIOZa	254.860	270.486	-6
Guztira	4.165.410	3.773.890	10

Alderik nabarmenena ikusten da lurraren gaineko kontribuzioan gertatu den igoeran, konzeptu hori dela-eta zergak ordaintzen dituzten eraikinen kopuruak gora egin duelako eta 2012an

indarra hartu zuen balorazio-ponentziaren katastro-balioak hiru urtetan mailaz maila efektibo egiten ari direlako. Halaber, nabarmen egin du gora ibilgailuen gaineko zergak, zeren eta Udala kanpaina bat egiten ari baita bizilagunek beren ibilgailuak zentsa ditzaten beraiek erroldatuta dauden tokian.

Udalak 2012ko ekitaldian aplikatutako tasak, EIOZari dagozkionak salbu, Toki Ogasunei buruzko 2/2014 Foru Legeak agintzen dituen tasa behereneko tartean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,1575	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,1 eta 2,8 bitarte	2 eta 3,8 bitarte
Zerga-tasa	12	8 - 20 bitartean
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4,5 eta 4,8 bitarte	2 - 5

Tasa hauetan ez da alderik izan 2009ko ekitalditik.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusail lagin bati azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

VI.7. HIRIGINTZA

Udalaren hirigintza-zerbitzua honakoek osatzen dute: bi udal arkitekto, aparejadore bat eta administrari bat.

Eguesibarko Udal Plana 2000. urtean onartu zen behin-betiko, eta kontzejuen beste zenbait planeamendu-tresna ere badaude aldi berean.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Eguesibarko Udalaren plan orokorra berraztertze prozedura 2006an abiarazi zen. 2011ko maiatzaren 16an, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren erabakiz, behin betiko onespina ematen zaio Eguesibarko Udalaren Plan Orokorrari –ibar osorako bakarra–, baina hiru hilabeteren buruan Erabaki horretan zehazten diren zehaztapen guztiak jasoko dituen testu bateratu bat aurkezteko exijitzen da. Nafarroako Gobernuaren erabaki horren kontra errekurtsioa jarri du herritar-elkarte batek.

Gero, Nafarroako Gobernuak baliorik gabe utzi zuen, urriaren 19ko erabakiz, planeamendu berriaren behin betiko onarpena, aurreikusten den egoitzen emendioa –21.435 etxebizitza– justifikatu gabe dagoela argudiatuz, besteren artean. Erabaki horrekin, plan horren behin-behineko onarpen-fasera atzeratu ziren berriro jarduerak. Gaur egun, Udala aztertzen ari da erabaki horretan ezarritako aldaketak, haiek jaso eta, hartara, HAPO berria idazteko.

Planeamendu berria indarrean jarri arte, oztopoak izanen dira Ibarren hirigintza planeatzeko, garatzeko, burutzeko eta gauzatzeko, Udalaren beraren eta Udaleko kontzejuen planeamendu-tresna desberdinak daudelako aldi berean.

Beste alde batetik, hirigintzako espedienteen kudeaketa, kontrola eta jarraipena erraztuko luketen kudeaketa-prozedurarik, datu-baserik eta artxibo zentralizaturik ez dagoela ikusi da. Horrez gainera, hirigintzako udal enpresek gauzatzen duten hirigintza-jarduerari dagokionez –etxebizitzak eta bestelako obra batzuk bultzatzea eta eraikitzea–, Udalaren hirigintzaren kudeaketarako eta barne kontrolerako organoek ez zuten behar bezalako jarraipenik egiten inbertsio horien garapen-prozesuaz. Hartara, jarraipen-txostenik egin gabe jarraitzen da.

Udalak udal inbentario bat egina dauka, bai eta Lurzoruaren Udal Ondarearen berriazko erregistro bat ere. Azken hori osatzen duten elementuen balioa 6,7 milioi eurokoa da 2014ko abenduaren 31n, 2013an bezalaxe. Egindako azterketan, ikusi da biak gaurkotuta daudela eta, orokorrean, Udalak haien gaineko kontrol egokia duela.

VI.8. ANDACELAY SL SOZIETATE PUBLIKOA.

Andacelay SL sozietatearen 2014ko abenduaren 31ko urteko kontuak kanpoko auditoreek egindako auditoria finantzarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzia aldekoa izan zen. Kontu hauek 2015eko ekainaren 10ean onetsi dira.

Sozietateak gerente bat dauka 2012ko abendutik.

Sozietatearen ondare garbia 2014ko abenduaren 31n 3,86 milioi eurokoa da; 2013ko abenduaren 31n, berriz, 3,84 milioi eurokoa zen. 2014ko ekitaldiko emaitza 15.449 euroko etekina izan da, zeina funtsean heldu baita finantza-emaitzatik; izan ere, horretan Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietatearen likidaziotik heldutako 44.481 euro erregistratu dira, hartan mantendutako efektibo likidoen zatiari zegozkionak. Sozietate horren likidaziorako eta desegiterako eskritura 2015eko apirilaren 25ean sinatu zen.

Gainera, izakinen narriatzerengatik egindako probisio bat erregistratu da, 21.588 eurokoa.

Aktibo zirkulatuaren "Efektiboaren eta bestelako aktibo likidoen" kontusaila 0,37 milioi eurokoa da 2014ko abenduaren 21ean, eta "aldi baterako finantza-inbertsio" gisa erregistratutako epe laburreko gordailu bat ere badago, 1,5 eurokoa; horrek, guztira, 1,8 euroko efektiboa egiten du, gehi epe luzeko 1,5 milioiko finantza-inbertsio bat. Gainera, 2014ko itxieran, balantzeak 470.233 euroko izakinak (ondasun higiezinak) islatzen ditu, zeinak heldu baitira lehen aipatutako sozietatearen likidaziotik; 2013ko izakinak, berriz, 491.821 eurokoak izan ziren.

Sozietateko Administrazio Kontseiluko burua alkatea da, bazkideen 2012ko ekainaren 28an batzar orokorraren aktaren bidez izendatua.

VI.9. GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II SL SOZIETATE MISTOA

2015eko ekainaren 29an eta 30ean, sozietate horren 2012ko eta 2013ko ekitaldietako kontuak egin eta onetsi dira.

Halaber, 2015eko ekainaren 30ean 2014ko kontuak formulatu dira, eta kontu horiek 2015eko uztailaren 2an onetsi dira. Kontuen egitea eta onespena merkataritza-legedia indardunean ezarritako epeez kanpo egin dira. Administrazioa guztiek ez dituzte sinatu 2012ko, 2013ko eta 2014ko kontuak.

Sozietateak 2015ean kanpoko auditoria bat egin du 2012ko, 2013ko eta 2014ko kontuei buruz, eta iritzia aldekoa izan da.

2011ko datu konparatiboak, 2012ko urteko kontuetan ageri direnak, ez dagozkie 2011ko urteko kontuei, 2012ko urteko kontuei buruzko oroitidazkiko 2.7 puntuan aipatzen diren azalpenei jarraituz.

Sozietateak 752.718 euroko ondarea dauka 2014an; 2013an, berriz, 741.950 eurokoa zeukan, nagusiki erreserbekin eratua (739.000 euro). 2014ko pasibo ez-korronea 2.596.414 eurokoa da guztira (2013an 4.000.528 eurokoa izan zen). Sozietate honek ez du langilerik.

Jarraian, izakinen xehetasunak, 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n:

Xehetasuna	2014	2013	Aldea (%)
Etxebizitzetako lotutako garajeak	100.500	150.270	-33
Etxebizitzetako lotutako trastelekuak	107.289	160.803	-33
Etxebizitzak	2.659.342	4.155.643	-36
Lokalak	98.400	98.400	0
Garaje libreak	63.000	67.200	-6
Hornitzaileei emandako aurrerakina	7.465	5.619	33
Balio-galera	310.003	459.825	-33
Guztira	2.725.993	4.178.110	-35

Ikus daitekeen bezala, 2014an zehar inbentarioaren ehuneko 35 saldu da.

2013ko ekainaren 14an, bazkide pribatua hartzekodunen borondatezko konkurtsoan deklaratu zen. Urteko kontuak egiteko egunean (2014-06-30) hartzekodunekiko hitzarmena egiteko proposamen bat badago zeina administratzaile konkurtsalak ontzat eman baitu, bazkide pribatuak aurkeztutako bideragarritasun planean oinarritua. Gaur egun hitzarmena jada irmoa da.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzábal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean 2015eko abenduaren 22an.

Jarduneko lehendakaria, Luis Ordoki Urdazi

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Eguesibarko Udaleko alkate Alfonso Etxeberria Goñi jaunak, Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, ondokoa dio:

2015eko abenduaren 16an jaso duela Eguesibarko Udalaren 2014ko ekitaldiari dagokion behin-behineko fiskalizazio-txostena.

Hura aztertuta, eta alegazioak aurkezteko emandako epearen barruan, idatzi honen bidez ondoko alegazio hauek aurkeztu nahi dituela:

Bakarra. Txosteneko 23. orrialdean, *“Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak”* atalaren barruan, eta Udalari gastu handiagoa ekar diezaioketen auziei buruz ari dela, honako hau jaso da:

“Udalak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren zerga-arloko ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsua. Udalak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 2014ko azaroaren 3ko 3219 ebazpenaren aurka aurkeztutako 4/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsua, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa dela eta. Epaia Udalaren aldekoa ez balitz, kostua 73.679 eurokoa izanen litzateke.”

Bada, kontua da prozedura horretan ISIVTNUren bi likidazio eztabaidatzen ari direla: bata 4.726,52 euroekin likidatua, eta bestea 68.952,15 euroekin. Horietako lehena jada errekarquarekin sartu zen, bide exekutiboan ordainarazi baitzen. Sartutako kopurua 5.674,90 eurokoa izan zen guztira. Horietako bigarrena (68.952,15 eurokoa) oraindik ere ez da sartu.

Horren guztiaren ondorioa da Udalak aurkeztutako errekurtsuaren ezesprenak 5.674,90 euroko kostua ekarriko liokeela erakundeari (jada sartutako diru-kopurua, zeina itzuli beharko baitu); eta errekurtsuaren baiespenak, berriz, 68.952,15 euroko diru-sarrerak ekarriko litziokeela (sartu gabe dagoen diru-kopurua).

Hori guztia dela eta,

Eskatzen da aurkeztutzat jotzea aurreko alegazioak eta kontuan hartzea behin betiko fiskalizazio txostena egiterakoan.

Sarrigurenen (Eguesibarra), 2015eko abenduaren 21ean

Alfonso Etxeberria Goñi, Eguesibarko alkatea